

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa martxan jartzeko, hainbat jarduera betetzea ezinbestekoa da. Atal honetan, jarduera hauen azalpena egingo dugu.

Hasteko, gure produktua bidaltzeko prest egon dadin, alde batetik konpasa bere ezaugarriak dituen kaxan sartu beharko dugu; hau da, lehenengo produktuaren muntaketa egin beharko dugu. Ondoren, kartoizko kaxan sartu, bezeroaren datuak inprimatu, eta bidalketa egiteko prest egongo da. Herriko dendetan salduko direnak berriz ez dute kartoizko kaxa individualik edukiko; zuzenean konpasak bere kaxetan eramango ditugu.



Gure enpresa ezaguna izatera iristeko, garrantzitsua da publizitatea egitea, eta aurretik aipatu dugun bezala, sare sozialen arduraduna Unax izango da. Bere betebeharra kontu hauek eguneratuak mantentzea izango da, eta gure bezeroen iruzkin eta mezuak azkartasunez erantzutea. Arreta zerbitzu ona eskaintzea ezinbestekoa da bezeroekin erlazio ona edukitzeko, eta honek gure enpresarengan konfiantza gehiago sortzen du.

Eiderrek berriz enpresaren mugimendu guztiak erregistratuko ditu; administratzaile lanak egingo ditu, diru kontuak ondo dabiltzala bermatuz. Horretarako, kalkulu orriak erabiliko ditu, eta taldekide guztien eskura egongo den arren, berari kontsultatu beharko zaio; honi esker, arazo eta gaizki-ulertuak saihestuko ditugu.

Irunek berriz beste enpresekin negoziatzeko ardura izango du. Bileretan bera izango da enpresaren bozeramailea; taldekideen eskaerak eta beharrak jakinaraziko ditu, ez bere ikuspuntu propioa. Gainera, hartutako erabaki guztiak partekatuko ditu solasaldi hauek amaitzerakoan.

Amaitzeko, aipatu beharra dago denon parte hartzea ezinbestekoa dela prozesu guztietan, nahiz eta arduradun bat egon. Honekin batera, gure azken jarduera egiteko, hau da, gure produktua Correos-era eramateko, hilabetero txandakatuko gara. Furgoneta Iruneren lehengusuarena da, baina gidatzeko baimenik ez dugunez, gurasoen laguntzaz egingo dugu jarduera hau; horregatik deritzogu egokiagoa txandakatze hau egitea.

